ZENBAT BURU
Ion Eugi

GENIGARRIA
Dekorazioa



# Barren

2000ko mckttzaren 26a
VIII. urtea - **322. zkia**

ELGOIBARKO ASTEKARIA



# Elgoibar mendiz mendi

"Mendiak gorago, bazterrak ederrago" (Esaera zaharra)




Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua

Miguel ALTUNA

AENOR

ER

10 Net —

# 2000/2001 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINTZA

**MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK**

Administrazioa eta finantzak
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
Mekanizazio bidezko produkzioa
Proiektu mekanikoen garapena
Plastiko eta kautxogintza

**ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK**

Mekanizazioa
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
cr Administraritza kudeaketa

Norberaren gaitasunen eta nahien arabera egokitutako ibilbideak

Behar diren baliabideekin

Bide eta ate guztiak zabaitzen dituzten ikasketak

Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

ticij4~ra4k.tufa e,Pe-a ZA574/1/C
otawra"ew te.&ii 72"a,
9ea.. aztajafi-e,r 71-a.

**Ibargarai 1. - Bergara •**
**Tel. 943 76 24 91 / 943 76 38 40**
**Bulego orduak 9:00etatik 13:00etara**

get994;19 ffak"tkalrezpvca teijaitop-a eta
esia4rekapiItuwio azalzwal6ffrafjo bbuip



ION EUGI

# HAUNDIAren etorkizuna

Amaitu berri den denboraldian, `Haundia'k maila galdu du eta hurrengo denboraldian Regional Preferentean jokatu beharko du. Aurten, gainera, bigarren aldiz galdu du maila Elgoibarrek, aurreko denboraldian ere bigarren B mailatik Hirugarren mailara jaitsi baitzen.

Porrot honen arrazoiak aztertzen hasita, ez da erraza zehatz-mehatz zein faktorek eragin duten azaltzea. Taldea, hasieratik beheko postuetan kokatu zen. Ondoren, gora-behera batzuk eduki zituen sailkapenean, baina azkenean, ezin izan zuen azken postuetatik irten eta azken hirugarrena bukatu zuen. Hirugarren mailako kategorian berdintasun handia dago taldeen artean eta behin gaizki hasiz gero, ez, da erraza beheko postuetatik ihes egitea.

**"Hirugarren mailako kategorian, berdintasun handia dago taldeen artean eta behin gaizki hasiz gero, ez da erraza beheko postuetatik ihes egitea"**

Kontutan hartzekoa da baita ere, 'Haundia'k denboraldian hiru entrenatzaile eduki dituela. Txotnin Arkotxa hasi zen taldea zuzentzen. Jarraian, ondarrutarrak kargua utzi zuenean, Jose Mari Arakistain etorri zen. BainaArakistain utzi beharrean izan zen eta bere lekua, ordura arte bigarren entrenatzailea zenak, Iñigo Arriolak bete behar izan zuen.

Bi jaitsiera hauek Julen Konde, `C. D. Elgoibar' ko presidentearen agintaldian gertatu dira. Hala ere, joan zen asteko biltzarrean, bazkideek babesa eman zioten karguan segitzeko. Konderen agintaldian, `Haundia'n jokalari elgoibartar gehiago egoteko ahalegina egin da. Txalogarria da ahalegin hori, baina elgoibartarren erantzuna ez da hobetu eta denboraldian ez dira asko izan Mintxetara partiduak ikustera joan direnak. Izan ere, `Haundia'k elgoibartarrekin bakarrik jokatuko balu, ez dut uste orain baino herritar gehiago igoko zirenik Mintxetara. Orduan, jokalari elgoibartarrekin batera, maila oneko kanpoko jokalariak ere eduki behar dituela uste dut nik. Hain zuzen, jendeak futbol ona ikusi nahi duelako Mintxetan eta horregatik futbol on hori eskainiko dion taldea egon behar da.

Hemendik aurrera, Konderen direktiba gauzak hobeto egiten saiatu beharko da. Hasteko, Regional mailako ekipoarekin izandako arazoa hitz eginez konpondu beharko litzateke, bi aldeen partetik jarrera gogorrik egon gabe. Ondoren, talde indartsua osatu beharko litzateke `Haundia' ahalik eta azkarren Hirugarren mailara bueltatzeko.

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, herriz, kolaboratzalle bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Barrak, Birrak eta Barreak



# BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
72 943 74 41 12
Publizitatea:
72 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA Eli Aizpuru
KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA Andoitz Agirregomezkorta
MAkErkrzAn.EA Bea Ansola
AommusTentoix Amaia Martin
GERENTZIA Rata Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzot Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiau rre.
AZALA Aitor Zabala
AZALEKO ESALDIA Gotzon Garaten liburutik
BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
EUSKARA ZUZENTZAILEA Ibon Arriola
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 3.870 ale
LEGE GORDA/LUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



*gizarte-ekintza*
*nbra social*

44 DANORAir

• - GOITI
GRUPO DANOBAT


# ESKUTITZAK

## Uranga jaunari

Lerro hauen bitartez, salaketa publiko bat egin nahi dugu; Erreala-Bartzelonaren arteko norgehiagokan Anoetako hegoaldean zegoen zalegoarekiko jarrera eta mesprezua, hain zuzen ere.

Egun hartan gure bihotzeko taldeak lehenengo mailan segitzeko aukera zuen eta hara non, gure pankarta "JO TA SUA" taldearena eta gure taldeko kide den Zuhaitz Gurrutxagari animoak emateko beste pankarta bat sartzeko debekua sofritu genuen; igandez igande gure pankartak jartzeko oztoporik ez daukagunean. Horrez gainera, Anoetako beste hainbat tokitan pankartak ikusi genituen eta larriagoa dena, gure aurkarien aldeko pankarta guztiak arazorik gabe jarri zituzten.

Zeren beldur zara Uranga jauna? Hori al da jarraitzaiIeei eskertzeko zure portaera? Ba al dago adierazpen askatasuna Errealean? Zer beldur diezu pankartetan agertzen diren lelo edo esaIdiei?

Esparru ekonomikoan lortutako emaitzak onartzen ditugu, baina kirol helburuak lort2eko anbizio eza nabaria dela uste dugu. Horregatik zu eta zure zuzendaritza batzordeko kideen zikloa agortu delakoan gaude.

Erreala ilusioa sortzeko familia handi bat da, ez dirua sortzeko enpresa bat, Gure sentimenduekin ez jolastu.

Amaitzeko, salatu beharra dago klubak Iker Sarriegirekin edukitako jarrera eta portaera, bere sakrifizioa eta Errealari emandako guztia publikoki eta afizioaren aurrean eskertu ez zaiolarik.

Uranga Kanpora!

Gora erreaIa!

**JO TA SUA taldearen**
**Zuzendaritza Batzordea.**
A.A NAN 15371534 • F.C. NAN I5366964

## Sentsibilitate falta

Arratsaldero Madalako parketik pasatzen diren horrenbeste neska mutiletako bat naiz eta amorru biziz jarri naiz duela egun batzuk herriko gazteak egindako mural polit bat falta dela konturatu naizenean. Parkeko pareta itxusi bezain indarge horri ematen zion bizitasuna eta kolorea horrenbestekoa zen, ezen jendearen oniritzia ere bereganatua baitzuen.

Egun denon ahotan dabilen arazo sozial bat izaki, eta herriaren gehiengoa ados dagoela jakinik, hain era xarmant eta artistikoan egindako gazte ekhnen baten plazaratzea modu gordin horretan ezabatzea
te falta itzela iruditzen zait.

Badirudi herri honetan agintariak pintadak eta muralak saku berdinean sartzen dituztela, herriko paretak zikintzen dituzte soilik, kontsiderazio falta itzela.

Besterik gabe, gazte hauei zorionalc eta ez etsi!

S.E.E.
NAN 15395636

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA ela ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik,
Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argi taratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia.**

• Gazte batek honako kezka hau azaldu digu: Zergatik ez dute 12-36 urte bitartekoentzat Iekuren bat ipintzen? Gaztetxea badago baina zaharragoentzat da eta tabernetara ezin gaitezke sartu 16 urte baino gehiago eduki arte. Ez al dago irtenbiderik?

• Artetxe kalean iturririk ez dagoela eta, neska batek honako kexa hau adierazi digu: " Haurrak ura edatera Pedro Muguruzako parkeko itunira joan behar izaten dira".

• Emalcume bat Santa Ana kaletik Andikano baserrirako bidean egunero ikusi ohi duten egocra tamalgarriaz kexu da."Alde batetik, jendeak beren txakurrak hara emmaten ditu egin beharrak egitera eta bestetik, penagarria da han egon ohi diren ijito familien egoera, zikinkeriaz inguratuta daude: koltxoiak, paperak... denetarik dago. Zerbait egin beharko litzateke. Handik paseatzeko goorik ere ez du ernaten".

• Haurrak dituzten emakume talde batek Elgoibarren umeentzat parke gutxi daudela dio. "Batez ere erdigunean, zeren eta normalean, herriaren kanpoaldera jo behar izaten dugu umeekin. Agian soluzioa Leku Ederreko berdegunean parkea jartzea litzateke".

• San Roke kaleko eta Pedro Muguruza kaleko bi bizitagun antzeko kexarekin hurbildu zaizkigu erredakziora. San Roke kalean, "Instituaren behealdean, zulo bat dago errepidean eta galipotearekin estali ohi hadute ere, beroarekin



berriro ere zabaldu egiten da. Kotxearekin bertara iristean, frenatu egin behar izaten dugu beti". Arazo berdina dute Pedro Muguruza kalean ere.


MONDRAGON UNIBERTSITATEA
I-ILIMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIETAKO FAKULTATEA

**IKASKETA HAUETAN AURRE INSKRIPZIO EPEA ZABALIK DAGO**

- Gizazientziak-Enpresa Lizentziatura
- Egokitze ikastaroa (Humannateak-Enpresa Lizentztaturako 2. zikloan sartzeko),
- irakasletza: Haur Hezkuntza, Hezkuntza Berezia eta Atzerriko Hizkuntza Diplornaturak.
- Hizkuntzen Psikopedagogia (2. zikloa).

IZENA EMATEKO EPEA: Ekainaren Zt}a arte.
ORDUTEGIA: 08,30-12:00 eta 14:30-17:30 (0.-twal arratsaltleak izan e:tk

1NFORMAZIOA:
HCHEZIkt' idazkatican. blzotiatzako Dorleta atuoan.
Tel.: 943 71 41 57 • FiLX11: 943 71 40 12
e-mall: ,:arrera@hulle:i.edn • wel) www.hulle:iatkuni.es
HarreinamAarako: N1orba l'agpnabarraga

**Cordon,Vilarchao, c.b.**
**DEKORAZIOA**
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 beheo. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

*JOSE 944/4ai (Txema)*
**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen ditugu**
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 929 44 23 14

ELENA
**Depilazio Elektrikoa**
San Frantzisko 49•1 TeL 943 74 11 89

lyk
**Mandiola Egurrak S.L.**
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 Ir 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83




## • Atxundamaikak eta GAZ-lk udalekuak antolatu thluzle

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika eta GAZ-T aisialdi taldeek udalekuak antolatu dituzte. Udaleku irekiak Elgoibarren izango dira uztailaren letik 21era, 2 urtetatik LH2ra arteko umeentzat. Udaleku itxiak, berriz, Aubixan, Pasaian, Atxondon, eta Bidarrai eta Belagua artean izango dira, eta hauetan LH3tik DBH4ra arteko ikasleek hartu ahal izango dute parte. Aisialdi taldetik adierazi digutenez, "aurten beste herri batzutako begiraleekin eta haurrekin joango gara udalekuetara eta inoiz baino aukera gehiago eskaini nahi dizkiegu herriko haur eta gaztetxoei". Interesatuek deitu 943 74 16 26 telefonora (Eli).

## • Udako Euskal Unliertsitatera joateko dirulaguntrak

Udako Euskal Unibertsitateak ikastaroak antolatu ditu uztailerako. Miarritzen eta Iruñean izango dira. Gai eskaintza zabala dago eta guztira 34 ikastaro egongo dira aukeran. Ikastaroetan izena emateko epea ekainaren 16ra bitartekoa izango da. Elgoibarko Udalak ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko dirulaguntza emango die langabetuei eta ikasleei, eta egonaldia ordaintzeaz ikastaroan parte hartzen dutenak arduratuko dira. Infornnazio gehiago nahi duenak, Udaleko euskara zerbitzura jo (Kultur Etxea) edo 943 74 43 66 telefonora deitu goizez.

## Herri Antzokia belta egln zarll 1Barrebusar telebista saloaren grahazijoan

### Bi egunetan 800 ikusle izan ziren bertan

rilxirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek Ixiar Oreja panderojole eta telebistako aurpegi ezagunarekin aurkezten duten `Barrebusa' saioa Elgoibarren grabatu zuten joan den astelehen eta asteartean (maiatzak 22 eta 23).

Bi egunetan Herriko Antzokiak gainezka egin zuen pailazoen ekitaldia ikusteko eta haur eta guraso artean guztira 8(X) ikusle hurbildu ziren. Saio arrakastatsuan pailazoek ezezik Elgoibarko haurrek eta gurasoek ere hartu zuten parte. Musikeskolako hainbat gaztetxok dantza egin zuten "Txirri, Mirri eta Txiribiton"en kantuen erritmora. Txan Magoren eta sabel-hiztun baten saiak ikusi zituzten eta baita hauekin gozatu ere. Bestalde, Elgoibar, Mendaro eta Soraluzeko guraso batzuek beraien seine-alabekin `Gurasodromoa' lehiaketan parte hartzera ausartu ziren. Zein diren eta nork irabazi zuen jakiteko ekainaren 17 eta 24ra arte zain egon beharko dugu, egun horietan emitituko baitituzte Elgoibaffen grabatutako bi programak.



*Musikeskolako haurrek `Txirri, Mirri eta Txiribiton' pailazoen kantuen erritmora egin zuten dantza.*

Herriko haurrek, gaztetxoek eta gurasoek arratsaldea giro alaian pasatu zuten eta batzuk gainera, sariekin joan ziren etxera.

## Urrtriune Literatu Taldeak 1Hamaika Literal[ton S. alea kaleratu du

### Bestaide, amaitu dira aurten antolatu dituen 'Poesia Eguna'k

AL urreko bi aleen ostean, Urruzunok "Hamaika itera"ren hirugarren zenbakia kaleratu berri du. Oraingoan zinea da aukeratu duten gaia eta honi buruzko poemak eta ipuinak idatzi dituzte. Ale honetan, taldekide berri baten lanak ere izango dira irakurgai.

Aurrez izena eman zutenek beraien etxeetan jasoko dute aldizkaria eta gainontzekoek herriko hainbat tabernetan, ikastetxeetan, liburu dendetan eta liburutegian eskuratzeko aukera izango dute. Taldekideek adierazi digutenez, urtea amaitu baino lehen beste ale bat kaleratzeko asmoa dute. Bide batez irakurleak harpidedun egiteko animatu nahi dituzte. Horretarako Elgoibarko Izarrera jo (Ubitarte 4 Behea) edo telefonoz deitu (943 74 16 26).




*Musikeskolako haurrek `Txirri, Mirri eta Txiribiton' pailazoen kantuen erritmora egin zuten dantza.*

`Poesia Egunak'

Aurreko urteetako literatur asteen dinamika albo batera utzi eta aurten 'Poesia Egunak' egin ditu Urruzuno Literatur Taldeak. Lehenengo ekitaldia `Uztail Oparo ostean' izan zen eta bigarrena, berriz, `Gaua' taldearen `Gau Sentipenak'. Antolatzaileek esan digutenez, Toletxe tabernan egindako ekitaldietara joan direnek poesia eta musikarekin gozatzeko parada ezinhobea izan dute eta gustura atera dira.

## Presoen aldeko ekknenak eta mobillizazioak egin dituzte aste honetan

EHk, LABek, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, HAIKAk eta SENIDEAK taldeak deituta, presoen aldeko ekintzak egin dira aste honetan  Euskal Herri osoan eta baita Elgoibarren ere. Ostiralean, hilaren 19an, kontzentrazioa izan zen Plaza Handian. Astelehenean, solidarioek kale agerraldia egin zuten. Astearterako irakaskuntzan greba deituta bazegoen ere, azterketak direla-eta ez zen egin. Asteazkeneko greba instituzionalaren deiari, berriz, EHk baino ez zion erantzun. Bestalde, Amnistiaren Aldeko Batzordetik, bihar, larunbata, Donostian egingo den manifestaziora joateko animatu nahi dituzte herritarrak.






## Herriko gaisoek beraien eguna ospatu zuten hilaren 21ean

Elgoibarko Osasun Pastoralak Gaisoen Eguna ospatu zuen joan den domekan, hilaren 21ean. Eguerdiko I 2:30ean meza izan zen gaisoen omenez. Meza ostean, 40 lagun inguruk elkarrekin bazkaldu zuten Jubilatuen Etxean, Gaisoen Eguna modu berezian ospatzeko. Berez, maiatzaren 28an ospatu ohi da Gaisoen Eguna, baina aurten egun horretan Lourdesera peregrinazioa egingo denez data aldatu dute. Bestalde, ekainaren 1 7an Gaisoen Pastoralekoek Estibalitzera txangoa egingo dute ikasturte amaierako bidaia gisa.

## Elgoibarko Ikastolako ikasleak Gasteizko Legebiltzarrean izan ziren

Ikastolako DBH 1 eko ikasleak Gasteizko Legebiltzarrean egon ziren duela gutxi. Bertan, azalpen egokiak eman zizkieten eta baita ongi tratatu ere. Bisita interesgarria izan zela kontatu digute eta Legebiltzarrean parlamentarioak ezezik kazetariak ikusteko aukera ere izan zutela.





## Lagun giroko kantaldia eskaini zuen Amaia Zubiriak Elgoibarren

50 lagun inguru izan ziren joan den ostiralean, maiatzaren 19an, Toletxe tabernan Amaia Zubiriak eskaini zuen kantaldian. Lagun giroan ordu eta laurdeneko saioa egin zuen gitarraren laguntzaz, eta kantu tradizionalez gain, azken bi diskoetako abestiak ere kantatu zituen. Bertaratutakoak ezezik kantaria bera ere gustura atera zen egindako saioarekin.

## Pilar Ikastetxeko ikasleak Saloun ikas-bidaian

Pilar Ikastetxeko DBH 2ko ikasleak Saloura joan ziren ikas-bidaian. Port-Aventura jolas parkean izan ziren bi egunetan eta bertako atrakzioetan oso ondo pasa zutela kontatu digute. Bartzelonara txangoa ere egin zuten eta han "Imax" eta "Sagrada Familia" bisitatu zituzten. Salou hiria ikusteaz gain hondartzara ere joan ziren. Itzulerako bidaian Zaragozan geldialdia egin zuten



GASOILINA LITROM 2 pta. 1GO DA AS7E IrlONETAN

# IgarK kluzu gasolinal2In prezioaren

L



**MANUEL FERNANDEZ**
54 urte, forjadorea

Bai, igartzen da. Eennero joaten naiz Ianera ltziarrera,autoz, eta langile baten ekonomian horrek asko eragiten du. Gainera, ez da kapritxo bat, beharra baizik.



**INMAGULADA MARTINE/**
41 urte, administraria

Gasoleoa botatzen diot autoari, baina halere igarri dut igoera. Gasolindegira joaten naizenean depositoa goraino betetzen dut, eta lehen diru gutxiago behar izaten nuen.



**CARMEN CASTELO**
49 urte, sukaldaria

Bai, gauza guztietan nabaritzen da igoera. Azken aldian ez dugu autoa asko erabiftzen, baina bidaiaren bat egin behar den bakoitzean bete behar da depositoa.



**AINARA ARGOITIA**
21 urte, ikaslea

Ez, oinguan ez dot bereziki Gasolinia bota bihar doten bakoitzian pentsatzen dot garestixa dala. Oin ez nakixan bi pezeta igo danikan ere.



**FCO. JAVIER FERNANDEZ**
38 urte, kalitate arduraduna

Ez, ez baitaukat autorik. Baina lagunek esan didatenez oso denbora gutxian asko garestitu dute eta gehiegizkoa iruditzen zait. Hau guztia zergengatik izango da.



**JULIO CUESTA**
34, teknikaria

Bai, egunean 40- 50 km. egiten ditut autoan eta poltsikoak ig.artzen du. Lehen 1.000 pta.rekin kilometro nahikoa egin zitezkeen. Orain Bilbora iristeko ere ez daukagu.





KAROBI
1171

Anchlustegui s.a.
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:
Olaso industriaIdea
Olasope, 5
20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 38 94374 23 71

® IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOTVIOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN "Yoi OEKO BEHERAPENA

ƍ1044 Tly« 44~4 diplet4 141(104 16 uttetel4t, 1

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

# Osasunean aditua

## GAIA:

## MENINGITISA

Hitz hori aipatze hutsak ikara sortu ohi digu, baina ba al dakigu benetan zer den meningitisa? Meningeen inflamazioa da, hau da, burmuina eta bizkarrezurra inguratzen duten menbranak handitzea. Pertsona osasuntsu askok izan ohi ditu gorputzean meningitisa sortzen duten bakteriak, baina ez dute gaitza garatzen. Kaltetuak, soilik, lehen aldiz agente horiekin kontaktua duten haurrak edo arazo inmunologikoak dituzten pertsonak izan daitezke. Sintomarik ohikoenak sukarra, hotzikarak, buruko mina, botaka egitea, lepoa gogortzea, argia ezin jasatea eta azalean anantxa gorri edo moreak agertzea izan ohi dira.

Bi meningitis mota daude: bata, birala eta bestea, bakterianoa. Biralaren sintomak ez dira hain gogorrak eta meningitis mota hau dutenak lehenago sendatu ohi dira. Baina bakteriek c>dola kutsatuz gero meningitisa Iarriagoa izaten da. Meningitisa sortzen duten bakteriak honako hauek dira:

**"Streptotoccus pneturnoniae"**
Meningitis neumokozikoa eragiten du eta heriotza tasa handiagoa du haurretan eta inmunitate baxuko pertsonetan.
**"Neisseria Meningitidis"**
Meningokozikoa sortzen du. Ohikoa da 5 urtetik beherako haurretan eta 20 urte inguruko gazteetan (%5 eta %10 artean hil egiten da).
**"Haemophilus influenzae"**
Honi ature egiteko txertoa aurkitu dute.

Odolean dauden beste bakteria batzuk eragin dezakete meningitisa eta baita burezurreko zuloetatik garunera sartutako bakteriek ere.

Ahalik eta denborarik gutxienean antibiotikoak hartuz sendatzea da egokiena. Bizkarrezurrean egindako sastada baten edo odol analisien bidez jakin daiteke zein bakteriak sortu duen gaitza eta zein den antibiotikorik aproposena.

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

**Kemen** Belardenda (Medikuntza naturala, F. de Bach, masajea, makrobiotika, yoga)
...................... **San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31**
........................ Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda (Medikuntza naturala, Modologia, masajea, reiki, yoga. Klaseak egunero)
........................................ San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
................................ Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus** (Optometria, kontaktulogia, tonometria, campimetria, audiometria)
...................... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
............. Jose Artetxe, 10 **Tel. 943 15 75 74** (Azpeitia)
................................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
...................... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
........................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
...................... San Francisco, 12 • Tel: **943 74 35 62**
........................ Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Ibiltzen**
........................... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
...................... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**
...................... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
........................... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

## PSIKOLOGOAK

**Nare psikologoak** (Heiduak, haurrak eta bikoteak)
...................... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

**[Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra]**

Osasunari buruzko kezloiren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra

# Mboct, UKarfe

**1 KASLEA – 16 URTE**

**1 - Merezi al du bizitzea? Eta Elgoibarren bizitzea?-** Bai. Elgoibar ez da oso herri politxa, baina hemen bizi bihar naizenez, konfonnau ein bihar dakatenakin.

**2 - Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batengan?-** Bai, dudarik gabe gainera.

3 - **Hil eta gero?-** Salda bero.

**4 - Lehenengo ni eta gero besteak.** Batzutan bai eta beste batzutan ez. Ez **da** izan bihar ez tontua, ezta egoistia ere. Bakoitza bere momentuan.

5 - **Nori kontatzen dizkiozu arazoak?** - Ahizpari eta laguneri.

**6 - Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa? -** Oin momentukua entrebistia bukatzia. Baina bizitzakua, arnama izatera ailegau eta bilobak mantalian eukitzia. Biziva, berriz, atzamarretako hazurrekin zaratia ateratzia.

7 - **Sinesten al duzu politikan? Emango al zenuke botorik? -** Ez. Azkenengo hauteskundietan ez naban botorik eman adin nahikorikan ez nalcalako, baina euki ezkero ere ez naban emango, ezingo nioke sinisten ez doten gauza bati botorik eman.

**8 - Noiz joan zinen azkenekoz manifestaldi batera? - Ez naiz sekula** ere manifestazio batera jun.

9 - **Euskalduna naiz eta harro nago? -** Bai, nik uste **dot** baietz. Bakoitza bere aberrixakin konforme egon bihar da, eta euskaldunok batez ere.

10 **Zerk galerazten dizu loa? -** Eulixen zaratiak.

11 - **Elgoibarko Gaztetxean sartzen al zara? - Oso** gutxi, astebukaeretan noizian behin, lagunak animatzen dianian. Anbiente politxa egoten da.



**12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? -** Ez dot uste, baina hori beraiei galdetu biharko jakue.

13 - **Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? –** Gehixen, ematen diaten askatasuna. Gutxien, berriz, paga gutxi ematen diatela.

**14 - Laguntzen al duzu etxeko lanetan? -** Ez, oso alperra naiz gauza hoietarako.

**15 - Alkoholik gabe ondo pasa daiteke?** Bai. Lagunekin ere ondo pasau leike alkoholik edan gabe.

**16 - Irakurri duzun azken liburua? - "Death** of an english man". Ikastolan bialdu ziguten eta derrigortuta irakurri dot. Egixa esan, irakurtzia ez jata gustatzen.

**17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? –** Maitasuna sexurik gabe. Nik uste dot sexua praktikau bihar dala maitatzen dozun pertsona batekin, bestela tristia iruditzen jata.

**18 - Birjinitatea traba aia bertutea? - Ez** bata eta cz bes ti a.

**19 - Homosexual batek maite zaituela esango balizu? –** Heterosexual batek esango balit bezela. Gustuko ez badakat ezetz esan eta gauzak argitxuko nitxuzke.

**20 Sinesten al duzu betirako maitasunean? –** Sinistu ein biharko da, esperantza behintzat euki biharko da.


O.TXO
19
ROCK-KAFEA
San Frantzisko, 41 - Tel. 943 74 39 25

Ilarkizano
San Frandsko, 14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome,

# clyx paiRcluz



## Dekorazio achigarria

### Jantzi zure etxea modu berezian

Zuretzat, gauza praktikoak gustuko dituzun horrentzat, eta era berean, dekoraziorako diseinuko eta modako azken tendentziak atsegin dituzulako. BARRENen dekorazioari buruzko gehigarria. Zure etxea nahi duzun moduan jartzeko hainbat argibide, modurik erosoenean, bakoitzaren txokoa norbere begiekin modu berezian ikusteko.

Movellán
Sukalde eta bainurako altzariak

Aluijzi4Ñ "Wala
pzWair

■ Kalitatezko altzariak eskura



KLAS1KOAK
MODERNOAK
ERRUST1KOAK

Banatzailea
Febal

P M. Urruzuno, 10 Tel. 943 74 37 66 - 20870 ELGO1BAR

# Armairuak, arropen gordeleku



Badira egindo saltzen diren arrnairuak, baina gero eta jende gehiagok nahi izaten du bere etxerako propio egindako armairu bat erostea. Arotzari zure etxeko armairua nolakoa izan behar den esan aurretik, kontutan hartu honako argibide hauek.

- **Arropa esekitzeko barrak**

Arropa guztiek ez dute luzera bera. Hori kontutan hartuta barrak ez ditugu 180 cm-tik gora jarriko eta barraren eta sabaiaren artean 10 cm lagatzea gomendatzen dute adituek, pertxak erraz mugitu ahal izateko. Oso goian esekitako arropak hartzea errazteko barra hidraulikoak edo abatibleak jar daitezke.

**Apalak**

Lanak errazteko apalak, kaxoiak eta barrak altuera ezberdinetan kokatuko dira. Jertseak eta tolestutako arropak eskura eduki behar ditugu. Ahal bada 60 eta 130cm bitarteko altueran. Apalen sakonera egokia 35 cmingurukoa da eta beraien arteko distantzia, berriz, 22 cm-takoa.

- **Kaxoiak**

Kaxoiak oso aproposak dira barruko arropa eta arropa delikatua gordetzeko. Desabantaila bakarra duten prezio garestia da. Merkeagoa da sarezko saskiak edo metrakilatozko kutxak jartzea. Baina beti ere gomendagarria da arrnairuan kaxoiren bat edo beste jartzea. Kaxoi soilak ezezik barruan atal bat baino gehiago dauzkaten kaxoiak ere jar daitezke. Hauek aproposak dira galtzerdiak eta gorbatak gordetzeko. Kirol arropa berriz, saski erako kaxoietan jartzea da onena horrela aireztatuta egoteko.


Etxe barruko arotz-lanak

isurita
Proiektu integraiak egurrean

*Igor Isasmendi*
*Ander Alkorta*




Antonio Arrillaga 14, behea
**Tel. 943 74 40 50** Faxa. 943 74 30 86
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



ATEAK
LEINOAK
EGURREZKO SABAIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
EDOZEIN MOTATAKO ZORUAK
TARIMA ARTISTIKOAK
BARANDAK
BIGA FALTSUAK etah...

TESOURO, S/A C-T ZERAMIKAK

Dekorazioako eta konstrukziorako materialak











Aditu, ta.ce batek zolu hormen disehzuetan
,,, azken joeretaz aholkatuko zaitu
zeramika mila aukera haitaude.

Erakustoki berria:

Karmen 4. behea
EIBAR
Tel. 943 82 03 76
Faxa. 943 82 07 76




Kalitaterik eta zerbitzurik onenak eskaintzen jarraitzen dugu

Poligano industriala z/g
ERMUA (Bizkaia)
Tel. 943 17 30 61
Faxa. 943 17 32 90



# Aitzariak konpontzeko trukoak

## • Ireki ezin diren kaxoiak

Zenbat aldiz jardun izan gara etxeko armairuren bateko kaxoiari tiraka zabaldu ezin dekko, eta kaxoi barrutik nahi genuena hartu ostean, berriz, bultzaka isteko ahaleginean? Erraz irristatzeko nahiko izango da altzaritik atera, buelta eman eta ertzak kandela batekin edo xaboi pastila batekin igurtzitzea. Kaxoia berriz bere lekuan jarri eta ireki eta isteko zailtasunak baditugu, ertzak lija paperarekin pasatu beharko dira eta ondoren, berriz xaboia edo argizaria igurtzi.



## • Kolonka dagoen aulkia

Etxe askotan izan ohi da ko[onka dagoen aulki bat edo beste, eta bertan jartzeak erreparoa eman ohi digu. Konpontzea oso erraza da eta norberak egin dezake. Lehenengo soka fin batekin aulkiaren hankak bilduko ditugu zuzen mantentzeko, baina aurrez egurra kartoi zatiekin babestuko dugu. Gero metalezko eskuadra txiki bat jarriko dugu (edozein ferreteriatan eros daiteke) desoreka dagoen anguloaren barruko aldean. Torlojuak ipintzea besterik ez zaigu geratuko. Hala ere, `tirafondo' luzeegiak erabiltzea ez da komeni, egurra aldenik alde ez pasatzeko.

## Mahai gaineko atzamarkadak

Gauza zorrotzek mahai batean egindako markak edo atzamarkadak konpontzea oso erraza da. Drogerietan horretarako produktu bereziak saltzen dituzte. Mahai gainean likidoa eman eta ondoren kotoizko trapu batekin gogor igurtziko dugu. Altzariei dizdira ateratzeko erabili ohi diren produktuek atzamarkada horiek konpontzeko ba[io dute. Marka handiagoa bada, ordea, tintea erabiltzea komeni da. Likidoa, markan bertan emango dugu pintzel batekin. Arrastada txikiak disimulatzeko altzariaren tono bereko produktuak ere saltzen dituzte.




# Zeramika. Lurrerako material aproposa

Mota askotako zeramikazko lurrak aurki ditzakegu, baina gehien erabiltzen direnak naturalak eta esmaltatuak dira.
Naturalek, esmalterik ezean, lurraren kolorea gorde ohi dute, baina kolorea oso aldakorra da (erabilitako buztinaren arabera). Gainera, tratamendu berezia behar dute garbiketa errazteko eta mantxak kentzeko; eta tratamendu hori argizariarekin eta barnizarekin egiten da.



Esmaltatua, berriz, tenperatura altuan egositako zeramika izaten da. Naturalei ez bezala, gainetik baldosak babesteko esmaltea dute. Horrela, garbitzeko errazagoak izateaz gain, desgasteari ere hobe egiten diete aurre. Tonuetan aukera gehiago egon ohi da eta baita diseinuo eta egituran ere. Horrek marmola, buztina edo parketa imitatzeko aukera ematen du.

Baldosen tamainua espazioaren arabera aukeratuko dugu. Bestalde, lurrerako erabiltzen ditugun dosek bat etorri behar dute gela horretarako erabiliko dugun dekorazioarekin eta altzariekin. Adibidez, alfonbrak jarriko ditugun egongela batean ez du merezi lurrean marrazkidun baldosak jartzea, inork ez baititu ikusiko.

Etxeko gauza guztiek bezala, baldosek ere bere zaintza eskatzen dute. Lur naturalek batez ere. Behin baldosak ipini ondoren, jaboi eta urarekin garbitu eta linazi-olioarekin igurtzi behar dira poroak estaltzeko. Hau lurra babesteko egokia da.

Zeramika lurrerako material egokia da, baldin eta ongi aukeratu eta, ipini ostean, hobeto zainduz gero.


# ESTUDIO SIGLO XXI

- PROIEKTUAK eta ERREFORMAK
- BARRUKO DISEINUAK
- GREMIOEN KONTRATAZIOA
  - Igeltseritza
  - Iturgintza
  - Elektrizitatea
  - Metal aroztegia
  - Egur aroztegia
  - Eskaiola
  - Pintura




**PATRICIA SANTANDER**
Dekoratzailea, 4777 kolegiatua

**San Bartolome 16, behea • Tel./Faxa: 943 74 23 06 « 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa) • E-posta: estudiosigloxxi@wanadoo.es**

# Sukaldea eta jangela biak batean

Gaur egungo etxebizitzetan, familiako elkarbizitza sukaldean egiten da. Janariak prestatzeko ezezik familia giroan bazkaldu zein afaltzeko egokiak dira sukaldeak.

Hori dela eta, sukaldeko dekorazioak egongelakoak besteko garrantzia hartu du. Nahiz eta sukalde txikiak izan, gutxi dira jateko lekurik ez dutenak. Jangelan, rnahaia, aulkia eta argiztapen egokia jartzea komeni da. Jende askori atsegin zaio lagun edo familia artean bazkaldu eta bazkalostean jangelan tertulian aritzea, beraz, zer hoberik horretarako jangela txukun prestatzea baina.



Adituek ere badakite jendearen ohituren berri, eta gero eta altzari funtzionalagoak eta estetika aldetik modakoagoak egiten dituzte.

Sukaldeko altzariak saltzen dituzten dendetan aukera oso zabala izan ohi da. Hasi estilo klasikotik (egurra, burdina, azulejoak...) eta gaur egungo moda industrialera (beira, aluminioa, altzairua...) artekoak.

Sukaldea eta jangela bat eginda jartzea erabakiz gero, bietan estilo beretsua mantentzea komeni da. Jateko erabiliko dugun mahaia sutegitik ahalik eta gehien aldentzen ahaleginduko gara, giro lasaiagoa sortzeko. Dena den, jakin badakigu gaur egungo etxetresnek zarata gutxi ateratzen dutela.

Sukaldea eta jangela biak batean, janaria prestatu eta berehala jateko aukera egokia da.



Antonio Arrillaga, zig • Tel: 943 74 43 47 (Postetxe parean)
5 urteko bermea

# Etxea berritzea erabakiz gero...



Etxe bat erosi eta berritzea erabakiz gero, hainbat etct hainbat faktore hartu behar dira kontutan. Modurik egokiena daukagun espazioari distribuzio berri bat ematea da. Aldaketak zehazteko gela bakoitza crztertu beharko da eta baita etxean zein funtzio betetzen duten ere. Ondoren ideiak plano batean islatuko dira, espazioen banaketa eta oinarrizko altzarien kokapena bertan ipiniz. Horretarako, onena proiektugile bati aholkua eskatzea da.

Etxebizitza zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta garrantzitsuagoa da espazioen banaketa eta altzarien kokapena aztertzeaz gain, iturgintza eta elektrizitate instalazioak aldatzea. Konponketa hauek garestiak izan ohi dira, baina baita beharrezkoak ere, jariorik ez sortzeko.

Entxufeak eta interruptoreak non jarri ere oso garrantzitsua da. Egun, kobrea, polipropilenoa edo polietilenoa bezalako materialak erabiltzen dira. Bestalde, deskaltzifikatzaileak erabiliz gero instalazioak luzaroan mantenduko dira egoera onean. Etxea apaindu aurretik telebista, telefonoa, ordenagailua... instalatzeko lineak jartzea komeni da.

### Leihoak eta ateak

Leihoak eta ateak aldatzea agian gastu handia izan daiteke, baina honek etxea barrutik asko jantzi ohi du eta kanpoko zaratetatik zein bero edo hotzetik babesteko balio dezake. Leihoetan, aire korronteak eta filtrazioak ebitatzeko burleteak jartzea komeni da.

Argibide hauek emateaz gain, etxea berritzea nahi izanez gero, dekoratzaile profesional batengana joateko gomendioa luzatu nahi genizueke. Adituek aholku zehatzagoak emango dizkizue etxea berritu eta apaintzeko.


Sofia
Dekorazio proiektunk

Lokal eta etxebizitzetako erreformak

Gremio talde osoa

Altzariak

Tapizeriak eta alfonbrak






**Ibaiondo 18, behea • 20720 AZKO1TIA**
Tel. 943 85 17 57 - Faxa. 943 85 17 57 Mobila. 619 969 257
KIROLDEGI ONDOAN

# Dekoratzailea, etxea apaintzeko laguna

Etxe bat apaintzeko ordua iristean, clekoratzaile baten laguntza komenigarria izan ohi da. Dekorazioari buruzko edozein zalantza argitzen ditu lan hauetan aritzen den profesional batek. Espazio bakoitzari izaera berezia ematea da bere eginbeharra, beti ere etxeko bizilagunen gustuak ezagututa. Horretarako elkarrizketa pertsonalak egiten dira. Berak aukeratuko ditu materialak, altzariak, oihalak... tangileen lana gainbegiratuko du eta baita aurrekontua gestionatu ere. Proiektua zenbat eta zehatzagoa izan orduan eta hobe. Planoak, lanak nola egin, obrak egiteko denbora, materialak, aurrekontua eta ordainketa modua egertu behar dira bertan.



Gehienetan dekoratzaileen lana nolakoa den lagunen bidez jakiten da eta horren arabera kontratatu ohi dira. Beste aukera bat dekoratzaileen Eskola Ofizialera jotzea da. Ez da derrigorrezkoa dekoratzailea kolegiatuta egotea, baina horrela izanez gero kontratua arauzkoa izango da eta, bete ezean, Eskolak izango luke ardura.

Dekoratzaile batek obraren %1 2a edo %15a kobratzen du. Gehienetan bi plazotan ordaintzen da: %60a, proiektuaren truke eta gainontzeko %40a, obra zuzentzeagatik.

Dekoratzaile bat hartzeak denbora aurrezten lagunduko digu. Dekoratzaileak berak ekarriko dizkigu etxera katalogoak eta muestrak, guk altzariak eta oihalak aukera ditzagun. Legeak horri buruz ezer berezirik esaten ez badu ere, obran erabilitako materialak eta hauen kalitatea egokiak direla ziurtatu behar du dekoratzaileak.

Dekoratzaileak buruhauste eta arazoak arinduko dizkizu eta baita etxea apaintzeko dauzkazun ideiak gauzatzen lagundu ere.


Eli Beobide

*dekorazio estudioa*





**Altzariak, Ezkontza zerrendak**

**Proiektuak Erreformak**

**Gremioen zuzendaritza**

**Altzarien diseinu** eta **fabrikazioa**

**Telak, tapizatuak, kortinak...**

*Jose de Artetxe, 5 - 20730 Azpeitia*

*Tel. 943 81 03 73 • Faxa: 943 81 58 01*

*Mobila: 616 05 02 44*





Aste honetan Nemese Ansolari esker argitaratu dugu erretratu zahar hau. 1964ko maiatzaren 28an ateratakoa da, "Corpus Cristi" eguneko prozesioan, hain zuzen ere. Elgoibarko kaleak jendez gainezka egon ohi ziren "Corpus"eko ospakizun hauetan.

Hauek dira prozesio huruan agertzen diren hiru gazteen izen abizenak, ezkerretik eskuinera: **Jose Antonio Arrieta Oregui, Jose Aranberri Arriola** eta **Jesus Miguel Ansola Aristondo.**



***ESKERTZA***

*2000ko maiatzaren 23an, 78 urte zituela hil zen*
*BEATRIZ ECHANIZ ARRIZABALAGAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



*I. URTEURRENA*
*1999ko ekainaren 6an, 75 urte zituela hil zen*
*TOMAS ZUBIA ARREGUIren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbatean, ekainaren 3an, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*

## • Baiiarako Futhol 7 txapelketan izena emateko epea zahalik dago

Ekainaren 10etik uztailaren 23ra bittutean jokatuko da Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek antolatu duten Futbol 7 Txapelketa. Izen-ematea Eibarko Ipurua Kiroldegian eta Elgoibarko Olaizaga kiroldegran egin daiteke, ekainaren 5era arte. Guztira, 50 taldeentzat lekua izango da, 25 Elgoibarren eta 25 Eibarren. Partiduak Mintxetan eta Eibarko Unbeko futbol zelaian jokatuko dira larunbatetan eta igandeetan, baina astegunetan ere joka daitezke.

## • 'Uda 2000' Kirol Kanpainako ikastaroak ekainaren 26an hasiko dira

Udal Kirol Patronatuak `Uda 2000' Kirol kanpainan izena emateko epea ekainaren 1 ean, ostegunean, irekiko dela aditzera eman nahi du. Kirol kanpaina 15 ikastaroz osatuta egongo da eta haur edo helduek hartu ahal izango dute parte bertan. Urtero bezala, igeriketa, tenisa, patinajea eta eskalada dira partaidetza handiena izaten duten ikastaroak. Dena dela, badira beste batzuk, jendearengan gero eta interes gehiago sortzen dutenak: Haurrentzako salsa edo aerobika, tai-chi, piraguismoa, mendi bizikleta eta Urkiola eta Urdaibaira txangoak. Ikastaro gehienek hilabeteko iraupena izango dute, ekainaren 26an hasi eta uztailaren 21ean bukatuz. Olaizaga kiroldegian eman daiteke izena ekainaren 26a baino I ehenago.

# G2 mendizalek hartu zuten parte Elgoibarko Mendi Itzullan

### Eguraldi euritsua ez zen oztopo izan eta batek izan ezik denek amaitu zuten



dsa den dornekan, hilaren 21ean, Elgoibarko Mendi Itzuliaren 8. edizioa izan zen duela 8 urte, proba hau beffeskuratu ostean. 62 mendizale abiatu ziren goizeko 6:30etan karakate aldera. Ibilbide luzea egin zutenek 45 kilometro inguru egin zituzten, eta ibilbide motza aukeratu zutenek, berriz, 38 km. Ibilbidearen berezko zailtasunaz gain, eguraldi euritsua izan zuten Mendi Itzuliko partehartzaileak. Jon Peli Uriguen Morkaiko Mendizale Elkarteko Iehendakariak azaldu digunez, ordea, eguraldia ez zen oztopo izan, "Urnobitzatik altzolara lokarza zauan, baina ostantzian tnendixan ibiltzeko nahiko eguraldi ona ein zaban, ez zan keja gehixegirik eon. Batek izan ezik danek amaitxu zaben itzulixa".

**Lehenak 5 ordu eta erditik behera**

Itzulia amaitu zuen Iehen partehartzailea plaentxiar bat izan zen. 5 ordu eta 23 minutu behar izan zituen tbilbidea burutzeko. Pilar Arriota, Kerman Moreno eta Igor Agirregomezkorta elgoibartarrek osatutako taldea 10 minutu beranduago iritsi zen. Mendizale gehientsuenak 15:00ak aldera ailegatu ziren. 9 ordutan, gutxi gora-behera egin zuten hauek mendi-buelta. Azken taldea arratsaldeko 18:00ak inguruan iritsi zen, tartean Mari Luz Izagirre partehartzaile nagusiena; g,aztеena, berriz, Antton Alberdi izan zen. Morkaikoko kideek bazkaria eskaini zieten partehartzaileei merkatu plaza gainean.

# Elgolbar senior mutilen eskubaloi taldea 2. nadonal mailara igo da

### Bestaide, Kadete eta jubenil mutilek Euskal Liga irabazi dute




*Elgoibarko eskubaloi talde batek inoiz jokatu duen mailarik altuenean arituko dira 1131H Elgoibar'koak datorreu denboraldian*

Bigarren nazional mailan jokatzeko igoera faseko azkenaurreko partidua jokatu zuten "IMH"koek pasa den zapatuan, hilaren 20an, Kiroldegian. Basauri taldearen aurkako partidua 31 eta 23 irabazi zuten. Garaipen honi esker "IMH" taldekoak Elgoibarko eskubaloi talde batek inoiz jokatu duen mailarik altuenean arituko dira datorren denboraldian, bigarren nazional mailan, alegia. 'Asobal' ligan jokatzeko 3 maila gehiago igo beharko lituzkete.

**Euskal Ligako txapeldun**

Bestalde, "Tecnomeea" eta "Pneurnax" kadete eta jubenil mutilen taldeek Euskal Liga eskuratu dute. Euskal Ligan jubenilen eta kadeteen emaitzak hartzen dira kontutan. Jose Antonio Hidalgok entrenatutako `°Tecnomeca"ko mutilek 18 eta 20 irabazi zieten Bilboko "Escolapios" taldekoei. Eneko Kortaberria entrenatzailearen aginduetara dauden "Pneumax" taldeko jokalariek, berriz, 17 eta 23 irabaži zieten "Escolapios" taldeko jubenilei.

# Julen Kendek 1Club Deportibo Elgolbarlo lehe niakaritzan jorraituko du

## Erregionaleko jokalariek zuzendaritzari barkamena eskatu beharko diote taldera bueltatzeko

C.D. Elgoibar Elkartearen egungo egoem eta zuzendaritzaren jarraipena eztabaidatzeko ohizkanpoko batzarra egin zuen Elkarteak pasa den ostegunean, hilaren 18an. `Haundia'ren jaitsiera eta 1. erregionaleko jokalarien eta entrenatzailearen plantoa izan ziren batzarreko gai nagusiak. Bazkideek Julen Konde C.D. Elgoibarko presidentearen jarraipena berretsi zuten. 25 boto alde, 11 kontra, 2 zuri eta balio gabeko bat izan zen bazkideek emandako botoen emaitza.



*Erregionalekoek taldera itzuli nahibaduie, barkamena eskatu beharko diote zuzendaritzari (argazkiait). Erabakia bozketa bidez berretsi zuten bazkideek: 25 botu alde, 14 aurka eta 6 zuri.*

Julen Kondek esan zuenez, mawndia'k bigarren urtez jarraian maila galtzeak lur jota laga gaitu. Egoera honen enudunak aurkitzea ez da erraza, futbolak ez baitu matematiken antzik. Denboraldi hasieran Txomin Arkotxa entrenatzailearen esku laga genuen taldearen osaketa. Fitxatu genituen jokalariek ez dute hasieran uste genuen mailarik eman. Zuzendaritzak, eta batez ere nik, presidente moduan dagokigun erruaren zatia onartzen dugu. Hon-ez gain, zorte txarra izan dugula aipatuko nuke, eta denboraldi berean 3 entrenatzaile ezberdin izateak ere ez digu mesederik egin. Honegatik guztiagatik irrikitan gaude taldea berriz ere 3. mailara igotzeko".

1. erregionala

Eztabaida gehien sortu zuen gaia 1. erregionalekoen plantoa izan zen. Erregionalekoek komunikabideen bitartez egindako salaketak banan banan erantzun zituen Julen Kondek, Jarrent berekoia erakutsi dutela esan zuen "C.D. Elgoibartik kanpo baleude bezala jokatu dute, autonomoak izango balira moduan. Liga amaitu gabe ustea ez da erregionalekoek hartu beharreko erabakia, are gutxiago 500.000 - 2.000.0000 pta. bitarteko isuna jokoan zegoela jakinik eta baita maila galtzeko aniskua ere".

Jokalariek taldera itzultzea nahi izanez gero, egindako salaketengatik barkamena eskatu beharko dute idatziz.

# "Mintxeta-Egondo" Atletismo Taldekoek emaitza bikainak lortu dituzte Ordiziako eta Zumarragako probetan



*Argazkian Ztunarragako herri lasterketan dontinak irabazi zituzten elgoibartarrak agertzen dira.*

lebin mailako Gipuzkoako Atletismo Txapelketaren 2. jardunaldia Ordizian jokatu zen. Bertan, hainbat elgoibartarrek hartu zuten parte "Mintxeta-Egondo" Atletismo Taldea ordezkatuz. Emaitzei dagokienez, Alazne Escuderok brontzezko domina eskuratu zuen 60 1n. hezietan eta luzera jauzian. Aitor Arrillagak. berriz, hirugarren egin zuen 2.000 m.tako lasterketan. Bestalde, Ehitzako (Zumarraga) herri lasterketan ere hartu zuten parte elgoibartarrek. Unai Cabok, Aitor Arrillagak, Maider Oñederrak eta Jose Juradok urrezko domina eskuratu zuten bakoitzak bere mailan. Aitor Arrese, Nerea Zubiaurre eta Jon Mekolaldek, berriz, zilarrezko domina ekarri zuten Elgoibar aldera.

## EMAITZAK

### Eskubaloia

Gaur Elg. 30 - Bergara 9 (Kad. mut.)
IMS Elg. **18** - Bera Bera 21 (Sen. nes)
IMH Elg. 31 - Basauri 23 (Sen. mut.)
Escolapios **18** - Tecnomeca Elg. 20 (Kad. mut.)
Escolapios 17- Pneumax Elg. 23 (Jub. mut.)

### Esku pilota

Lagunak Pilota Txapelketa

Unamunzaga 18 - Mendibil 10 (Benj.)
Arribillaga 18 - Bilbao 2 (Benj.)
Portu **18** - U. Larrañaga 7 (Aleb.)
G. Zulaika 18 - J. Mugerza 17 (Aleb.)
H. Larrea 18 - Muñoz 14 (Aleb.)

### Idarraga Kafeak 3. saria

HAUNDIko jokalari erregularrena 99/00

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Loren | 35 |
| 2- Aranberri | 33 |
| 3- Castro | 29 |
| 4- Zulaika | 28 |
| 5- Ibarluzea | 27 |
| 6- Gastillo | 26 |
| 7- Alberdi | 23 |
| 8- Baque | 22 |
| 9- Polo | 21 |
| 10- I. Leonardo | 17 |
| 11- Bravo | 16 |
| 12- Diaz | 15 |
| 13- Caro | 14 |
| 14- Mikel | 12 |
| 15- Ruiz | 8 |
| 16- Guarrotxena | 6 |
| 17- Manolo Ramos | 4 |
| 18- Alorta | 4 |
| 19-Txasio | 4 |
| 20- Edu | 4 |
| 21- Femandez | 2 |

## AGEN ir iffizr

### Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 26
22:30 Zur Ta Lur- Cocinas Urarte (1.maila)
Ianinbata, 27
19:110 Zur Ta Lur -Puerto Pasajes (Autonam.)

### Eskubalola, Kiroldegian

Iarunbata, 27
16:00 Tecnomea Elg. - El Pilar (Kad.)
17:30 Pneumax Elg. - El Pilar **(Jub.)**






*Lov'ecv Gelv'ate.*

L:rea Ga-ate 27 urteko mendarotarrak erizaintza ikasketak egin zituen Iruñean, inguruan lan gutxi zegoela-eta `curriculum'ak bidaltzen hasi zen, tartean bat Turinera (Itatia) bidali zuen. "Turineko ospitale batetik deitxu ziguten eta lau lagun: bi azpeitxiar, markinar bat eta ni ausartu ginau Italia aldera etortzera". Sei hilabete pasatzeko joan ziren urtarrilean, baina bere egonalclia luzatzeko asmotan dabilela azaldu digu. "Lanerako kondizivak oso onak dia, pisua ere beraiek jarri digute eta erizain bihar haundixa dao inguruetan. Gainera ez dou problemarik euki hizkuntziakin, hitz eitxia zailaua da, baina belarrixa segiduan eitxen da". Oso gustura egon arren herrimina nabari duela esan digu, "gabetako girua oso ezberdina da. Hemen dana diskotekak dia, Italiano danak trajiakin eta engominauta urtetzen dia eta argi dake zer nahi daben. Santanetan Mendarora juteko desiatzen nao". Turin Italiako iparraldean dago, gunerik industrialenean, "izuganizko auto fabrikaz beteta dao, Fiat auto etxia bertakua dalako. Langiliak mundu guztikuak dia eta kaliak Fiat autoz beteta daoz". Amaitu berri den Cannes-eko (Frantzia) zinemaldian ere izan direla aipatu digu, "Lujua nonahi zauan, eta Laetitia Castakin eta ParneIa Andersonekin argazki batzuk ere atera genitxuan".

VIAJES BIPAIAK
**BILBRO EXPTESS**
**bidaia agentziak**
**babestutako atala**
Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

# G O G O R A T U Z

## Ramon Elorza Arano (1908-1989)



• 1908ko abuztuaren 31n jaio zen San Frantzisko kaleko 19, zenbakian, eta arraroa badirudi ere, sekula ez zen etxez aldatu. Anai-arrebetan zaharrena zen bera.
• Gaztetan eskola publikoan egin zituen ikasketak. Gazte sasoia lagun artean pilotan eta abarrean jolastuz igaro zuen. Madalatarran kuadrilakoa zen eta plazatarren aurkako kirol jokoetan hartu zuen parte.
• Bere aita iturgina zen eta 13 bat urterekin berarekin hasi zen lanean. Lan asko eginaz, aitaren ofizio berbera eskuratu zuen.
• `San Luis Gonzaga' kongregaziokoa izan zen. Erromeria batzuetara joan ohi zen eta baita lagun artean, gustura, herriko lehengo `Kakatza' eta `Usetxe' sagardotegietara ere.
• Abertzale amorratua izan zen beti. Soldadutzatik libre atera zen. 1936ko gerratean, Bilbon eta Castro Urdialesko ospitalean egon zen. Bere aita, zoritxarrez, gerra honetako herriko bonbardaketa batean hil zen, eta Ramon, etxera itzuli eta berriz hasi zen martxa hartzen iturgintzako ofizioan. Urteetan segitu zuen lanean bere kontura.
• `Gaueko Adorazioan', Koru Parrokialean, Musika Bandan egon zen Ramon eta antzerkiak egiten ere hartu zuen parte. Herrikoia zen benetan.
• Itziarren ezkondu zen bertako `Oixama' baserriko Mertxe Beristainekin eta alaba eta semea izan zituzten. Suhiak M.Fran Romera eta Iñaki Elustondo dira.
• Sinesmenekoa, zintzoa eta familiakoa zen gizon honek ez zuen zorterik izan. Hanketatik operatu eta hala ere, elbarri geratu zen. Gurpildun aulkian egon zen 15 urtez.
• Gizon jator eta umoretsu honen zaletasunak lagun artea, irakurtzea, euskal kantak, abizenen sustraia ateratzea eta bere harmarriak egitea eta 'Butron' tabemara joatea ziren.
• 1989ko martxoaren Iln hil zen 81 urte zituela.

Juanito Gorostiza

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
943 82 01 09
Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea
• 20600 EIBAR

IeW40.1 Q4 etntp.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAKERRA

nondo TABEINIA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15

## "Oskorrl 81 The pub ibiltaria" kantaldia eskainiko du Oskorri Taideak asteazkenean¡ hiiaven S1

### Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek hartuko dute parte

*Udaleko Euskara eta Kultura Batzordeek `Euska1 kantagintza' egitasmoa jarri dute martxan. Urte osoan zehar lau rnusika saio antolatu dituzte: Oskorri, Ikaro (Juan Carlos Perez eta Maskarada taldea), Mikel Urdangarin abeslaria eta Garbcot (Folk taldea). "Oskorri & The pub ibiltariu izango da lehenengo saioa maiatzaren 31n, asteazkena, iluntzeko 19:30ean Herriko Antzokian.*



*18 kantu herrikoi eskainiko ditu Oskorri taldeak Elgoibarren*

Saio honen antolakuntzan laguntzaile izan dira 'Arigera' egitasmoko erakundeak (Udala, Elgoibarko Izarra, Udal Euskaltegia eta AEK). Kantaldia irekia da, Oskorriko partaideekin batera, instrumenturen bat jo edo abestu nahi duten guztiek parte hartzeko aukera izango dute. Saio honetan Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek hartuko dute parte.

**Kantu herrikolak**

Kantu herrikoiak berreskuratzeko asmoz, Oskorrik proiektu berri bat jarri zuen martxan 1997an, "Oskorri & the pub ibiltaria" deitzen dena, hain zuzen ere. Proiektu honetan 70 kantu herrikoi jaso ditu Oskorrik. Elgoibarko satoan laugarren diskoan jasotako 18 kantu herrikoi entzuteko aukera izango dugu, tartean baita kantu ezagunak ere: "Iturengo arotza", "Neskazaharrak joaten dira Madalenara", "Amak ezkondu ninduen"... Sarrerak aurrez eros daitezke Kultur Etxean goizeko 7:00etatik 15:00etara eta larunbatean 8:00etatik I 2:30etara. Prezioak honako hauek izango dira: Fleldue k, 700 pta. eta 18 urtetik heherakoek, 300 pta.

## lUller 600` musika taldearen lehen diska kalean da

### Alberto Gonzalez elgolbartarrak gitarra jotzen du taidean

"Uller-600' musika taldea 4 herritako 4 kidek osatzen dute. Alberto Gonzalez da taldeko elgoibartarra eta berak azaldu dizkigu talde berri honen lehen diskoari buruzko xehetasunak. "Gure lehenengo konpaktoak 9 abesti ditu. Guztiak ingelesez dira, euskaraz idatzitako bat izan ezik". Momentuz 500 aie bakarrik argitaratu dituzte. 1.000 pta.ren truke Elgoibarko Txuri-Beltz, Iriondo eta Iratxo tabernetan jarri dituzte salgai. "TaIdea inork ezagutzen ez badu alferrik da banaketa handia egitea. Jendearen erantzuna neurtzeko proba moduko bat da lehenengo



*Diskoaren 500 ale kaleratu dituzte. Iratxo, Iriondo eta Txuri-beltz tabernetan daude salgai 1.000 pta.ren truke.*

disko hau. Abesti gehiago ditugu Irabatuta eta aurrerago seriotasun gehiagorekin landutako diskoa ateratzeko asmoa daukagu". Estiloari dagokionez, ¯6Nemen9' taldearekin egiten genuen musika baino errazagoa da entzuteko. `R.E.M.' edo `Pink Floyd' taldeen antza dugula diote batzuk" avaldu digu Albertok. `thIer 600'eko kide bakoitzak bere talde propioa zuen elkar ezagutu aurretik. Ina Saint-Gerons mendarotarra adibidez, "Lily Moon" taldeko partaidea zen, Imanol Manterola zumaiarra "Po" taldekoa eta Iñaki L.1351un eibartarra, "Rawgarlic" taldekoa.


TOLE TiXE
TAI3ERNA
Feciro Muguruza 8, behea
Tel. 943 7419 45


ideo



eki nez



cg iten da




ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

## 2G ostirala

18:00 ARGAZKI ERAKUSKETAren INAUGURAZIOA
Izenburua: "Itzal bat gogoraraziz"
Argazkilaria: Roberto Botija
Kultur Etxean
Antolatzailea: Ongarri Kultur Elkarte
Ekainaren 24ra arte

21:30 ZINE KLUBA
"Una historia verdadera"

## 27 larunbata

19:00 KONTZERTUA
Taldea: "La banda del Moski"
Gaztetxean
Antolatzailea: Gazte Asanblada

19:30-22:15 ZINEA
"Tres Reyes"

22:00 KONTZERTUA
Taldea: M.A.L.M.
Gaztetxean
Antolatzailea: Gazte Asanblada

## 28 igandea

9:00 ZIKLOTURISTEN IRTEERA
Txankakua zubitik
Antolatzailea: Elgoibarko L.T.

12:30 EIBARko MUSIKA BANDAren KONTZERTUA
Herriko Antzokian

16:30 ZINEA
"El gigante de hierro"

19:30-22:15 ZINEA
"Tres Reyes"

## 2 astele ena

22:15 ZINEA
"Tres Reyes"

## 3 asteaz ena

19:30 OSKORRI & THE PUB IBILTARIA
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko Udala
Laguntzailea: "ARIGERA" proiektua (Udala, Elgoibarko Izarra, AEK Euskaltegia eta Udal Euskaltegia)

## 2 ostirala

18:30 ODOL ATERALDIA
P.M. Urruzuno 8an

19:00 HERRI ESKOLAKO JAIALDIA
Herriko Antzokian

## 11 NE A



**Zuzendaria: David** O. Russell.
**Antzezleak: George Clooney, Mark** Wahlberg, Ice **Cube.**

### "Tres reyes"

E.E.B.B.etako lau militar Golkoko gerran daude. Erabat aspertuta daude, teknologia menperatzen duten espezialistak baitira borrokan egiten duten bakarrak. Sadam Husseinek jeke arabiarrei lapurtutako altxoffaren mapa bilatzen dutenean, desertatu eta irakiarren lurraldean sartzea erabakiko dute. Dirua lortzea zen euren hasierako asmo bakarra, IliWakiaffen bizimodua ezagutu ahala, mundua ikusteko zuten modua erabat aldatuko da.

## • "La Banda del Moski" eta "M.A.L.M." tableen kontzertuak Gaztetxean

Bihar, hilak 27, bi kontzertu izango dira Gaztetxean. Lehenik eta behin, "La banda del Moski" talde ermuarra igoko da taula gainera. Saioa arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Ondoren, Gasteizko "M.A.L.M." taldearen txanda izango da gaueko 22:00etan. Talde honek "Fear Factory" talde ezagunaren antzerako musika egiten du.

## • Odol ateraldia ekainaren 2an

Datorren ostiralean, hilaren 2an, odol ateraldia izango da Pedro Migel Urruzuno 8an. Ohi be zala arratsal deko 18:30etik 20:30era bitartean egingo dira ateraldiak. Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak odola ematera animatu nahi ditu 18 urtetik gorako guztiak.

## • Filatelia Elkartearen txangoa

Elgoibarko Filatelia Elkarteak Calahorrara txangoa antolatu du bazkide eta laguntzaileentzat. Errioxara trteera ekainaren 3an izango da. Bertako fllatelia elkarteak jarritako erakusketa bisitatzeaz gain, hiria ikusteko aukera izango dute joaten direnek. Interesatuei jakinarazi nahi zaie lehen bailehen izena ematea komeni dela eta horretarako zuzendaritzako kideei jakinarazi beharko zaie.

## • Azken ABanpada Bilkatho Meñakan

Ekainaren 2, 3 eta 4an Bizkaiko Meñakan egingo da 9. AEKanpada, eta Elgoibarko AEK Euskaltegiak bertara joateko animatu nahi ditu euskaltzale guztiak. Azken AEKanpada izango den honek, euskara erabiltzeko, bizitzeko eta gozatzeko aukera ugari eskainiko ditu. Bertan euskal kulturaren eskaintza zabala izango da. Besteak beste, `Kashbad', `Ekon', `Joxe Riplau', 'Bide Ertzean' edo Balerdi-balerdi' musika taldeen doinuak entzun ahal izango dituzte Merialcara joaten direnek.

## • Gorputz barneko energiari buruzko ikastaroa Olaizaga Kiroldegian

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Olaizaga Kiroldegiak bioenergia edo gorputz barnean daukagun energiari buruzko ikastaroa antolatu dute. Inrna Zufiria izango da irakaslea. Inma Japonen izana da eta bertako maisu batek irakatsi zizkion bioenergiari buruz jakin beharrekoak, besteak beste, hanken bidezko arnasketa. Ikastaroa ekainaren 6an hasi eta eta ekainaren 29ra arte luzatuko da. Izen-emateak 5.000 pta. balio ditu bazkideentzat eta 6.000, bazkide ez direnentzat. Leku kopurua mugatua denez, lehen ballehen izena ematea komeni da Kiroldegian, azken eguna ekainaren 6a izango da.

## • Roberto Botijaren argazki erakusketa gaur, hilak 261 inauguratuko da Kultur Etxean

Roberto Botija bilbotarrak bere jaioterriko itsasadarrean egindako 40 argazkiz osatutako "Itzal bat gogoratuz" erakusketa inauguratuko du gaur, barixakua, Kultur Etxean. Ongarri Kultur Elkarteak, Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz antolatu duen erakusketa ekainaren 24ra arte izango da ikusgai. Botijak aurkezten dituen irudietan Bilboko industri paisaien lehena orainaldiaren ikuspuntutik aztertzen du. Denboraz zaharkitutako tokiak berritzen ditu. Xehetasun handiko eta landutako irudialc dira denak zuribeltzean. Erakusketa aitzakiatzat hartuz, Ongarri Kultur Elkarteak liburu bat argitaratu du. Liburua Javier Salazar arkitektuaren testuz eta Roberto Botijak aukeratutaka 30 argazkiz osatuta dago.



## TXANDAK

### FARMAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 27 | *Bidasolo | Fernandez |
| 28 | *Bidasolo | Fernandez |
| 29 | Yudego | Yudego |
| 30 | Zabaleta | Zabaleta |
| 31 | Bidasolo | Bidasolo |
| 1 | Escala | Escala |
| 2 | Bidasolo | Bidasolo |

*(eguerdiko 2ak arte)

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
**J. IGNAC10 FERNANDEZ** Herriko enparantza 4, Garagarza.Tel: 943 75 61 42
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. TeL 943 75 13 84

### OKINDEGIA

28 igandea Zabaleta

# oskorri & the pub ibiltaria

LAGUNTZAILEAK:

prolektuko
erakuntle eragneak:
ELGOIBAnk0 IZAPELA AER LUSEALTIMA
UDAL LUSKALIEG1A - ELCUIDARHO UDALA

DIPUTAZIOA



Mallzah 31, ASTEAZKENA

Arratsaldekti (11 ean

,Hern o Antzokian

eralc aurrat satduko titra
Sarr tultur Meali
Ilaiduak 100 pta.
18 urtet% beheralcoak 110 pta.

ANTOLATZAILEA:

ELGOLBARK0 UDALA

ERREM1NTAREN
INSTITUTUA

INSTITUTO MMINA
DE MAQUINA
HERRAMIENTA

INFORMAZIOA:
San Roke Auzoa, 1 Elgoibar, Gipuzkoa
Tlf; (34) 943.744132 Fax: (34) 943.744153
e.mail: amaia@fmh.es

*2000/2001 IKASTURTEA*

## HEZIKETA ZIKLOAK

*GOI MAILA (A eta D ereduak)*

- *PROJEKTU MEKANIKOEN GARAPENA*
- *MEKANIZAZIO B1DEZKO PRODUKZ1OA*

o 1NDUSTRI EK1POEN *MANTE1WMENDUA*

***ERDI MAILA (A eta D ereduak)***

- ***MEZANIZAZIOA***

*Ekalnaren lean ateak zaballk*
*Arratsaldeko Tetan*





ER-0633/1/98

ISO 9001

*Izena emateko epea: Ekainaren letik 12ray biak barne*

# BIZITZEKO ERA BERRIA

Residencial
Magicialerta

Estilo berritzailea duen ingurua sortu
nahi dugu. Gaur egungo bizitzeko erari konponbide
berriak eta behin-betikoak eskaintzen dizkiogu.
Apartamentuak• 2,3 eta 4 logelako etxebizitzak.
Terraza zabaleko duplex-ak*Etxebizitzak lorategiarekin.
Garajeak*Trastelekuak eta saltokietarako lokalak.









**28 ETXE GELDITZEN DIRA LIBRE.**
**HASIERAXO PREZIOAK MANTENTZEN DITUGU.**

**Argibideak eta salmenta: obran bertan**

**943 74 24 00**

Sustatzailea:

**MENDIBIL ELGORRIAGA, A.1.E.**

Eraikitzailea:

WENABAR. S.A.